

Atea naz. Zarra? Gaztea? Neuk be ez dakit. Dana dala, atea. Egu-rrezkoa, astuna. Albo bietan take-tak daukadaz, ni estutzen nauenak, baita goian be. Onein artetik ezin, nai ta be, igesik egin, zedenak la-gundu ezik. Erdian, deitzeko, bur-diñ lodi samarra daroat: krisketa deriste. Baita ba-dot giltz-zulo ta morroilloa be; oneik gaberako. Sar-tukeran, oratzeko ta, kisketa jarten daustie; burdiñezkoa au be.

Atea naz, bai, zura ta burdiña. Atea! Bertanbera itxia sarri. Ni be, Lizardi'k abestutakoa. Zer? Entzun:

Joka nagokik atea,
ate gorri zurezkoa,
euri zarrek usteldua;
marraskilloek bide biurri
dirdaitsuez apaindua.

Zer nazan, oraindik be? —Mundu biren banatzaille. Kanpotik zatorz zu, pozik, zeure emaztea, seme-alabak, ikustera. Aringa zatorz, arnas estuka: nire kisketetik oratu ta barrura. Kanpoa or geratzen yatzu. Barrurantza sukaldea, «barne muin epela» asten da; bizitza maitekorra. Or, kanpoan bizi bearra; emen barruan, maite bizitza gozoa.

Zabaldu naiz itxi naroe. Zabaldu: umetxo jalo barria, edo-ta ezkongai gaztea, eleizarako bidean jar-tean;

ildako aitaita naiz amama, aita, ama naiz seme-alaba bat kanpo-santura eroatean; jateko billa plaza, eskolara, lanera, igandeetan eleizara naiz erromerira joatean. Itxi: nekatua barruko epeltasunean artzeko.

Eten bako zirkiñean, artu ta emon dagit, bai. Truke leku atsedeen bakoa. Artu, lan billa naiz osasun billa datozen arima onak. Emon atsedena, poza, irribarea, uste ona.

Deitu zuk be, ta zabalduko yatzu. Palestina'ko Igarle aundiak: «Ots egin, ta edegiko yatzu». Nik errez entzuten ditut barrukaldetik ga-rraxiak, txilioak, susmurrak, unte-txoen barre-zantzo gozo alaiak. Esamesai «ez urten» diñotset; «al-di emen, ixillik». Barruan gordelan dodaz baita mosuak, negarrak, le-nar-emazteen kezak eta burdiñe-este txikiak, edo aundiak. Emen lo-ten dot guzti ori. Illundutakoen, giltzez itxi naroe. Barruko gozo za-suna bai ederra, ezeren kezka ga-rik! Neuk zaintzen dodaz barruko «sendi» osokoak.

Gero, barriz be, goiz-urratzean, kanpora doa barruko poztasuna, zoriona: umetxoak saltoka eskola-ra; gurasoak, alai, lanera... Kanpoan be irribarrea loratzen, eskuak estutzen, anai arteko beroa senti-tzen.